

Behin unibertsitatean →indoeuropar hizkuntzen gramatika konparatua ikasi zuen.

Handik urte batzutura mintzairaren gertaera fonikoez arduratzen hasten da eta lan hauengatik da, hain zuzen, gaur ezaguna Troubetzkoy.

R. →Jakobsonekin harremanetan jarriko da eta 1928.urtean biak Praga-ko Zirkulu Linguistikoa aurkitzen ditugu. Zirkulu hau →fonologiari buruzko ikuspuntu berriekin agertuko da Kongresu desberdinetan (beste zenbaiten artean Praga-n, 1929, Amsterdam-en 1932, Erroma-n 1933, Kopenhaven 1936) eta Troubetzkoy-k partaidetza garrantzitsu bat eskaini zuen lan hauek prestatzen.

Idatzi zituen artikuluen multzotik bi aipatuko ditugu: *Zur allgemeinen Theorie der phonologischen Vokalsysteme, Anleitung zu phonologischen Beschreibungen.*

1939an, bera hil ondoren argitaratu zen *Grundzüge der Phonologie* liburuak jasotzen du fonologiari buruzko haren ikuspegia.

Bere aitzindariekin zordun bada ere, Troubetzkoy lehenengoa izan zen →fonemaren definizio zientifiko bat ematen. Definizio hau J. Baudouin de Courtenay-k eman zuenari aurkajartzen zaio azken hau psikologikoegia delako eta baita Lev Vladimirovitch-enari ere fonetikoegia delako.

Fonemaren definizioa, bereiztasun kontzeptuaren eguneratzea, →neutralizazioa, →aurkakotasunen tipologia bat egitea (→pribatiboak, →aldebikariak, etab.), haren lan-eremuan sartu ziren.

Berak landutako hainbat kontzeptu eta prozedura zorrotz dira, baina obra bere osotasunean fonologiak geroztik izan duen garapenaren oinarrian dago.

Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik fonologiak bere status zientifikoa Troubetzkoy-ri esker hartzen duela esan daiteke.

Trukaketa

conmutación / commutation / commutation

Trukaketa deritzon proba maila fonikoa erabili zen aurrenik; eta →Jakobson-ek azaltzen duen helburuan egiten zen: hitz bate-

tan segida foniko bat kendu, eta berorren orde bestea segida foniko bat tartekatu; eta horrela, eta hizkuntza berean beti, beste hitz bat aurkitu». Trukaketa-bide hau erabiliaz, gauza batzu lor daitezke. Alde bategatik, →fonema berberak bi →alofono (edo gehiago) izan ditzakeela hizkuntza batetan jakitea:

eusk. [eʃan] = [eʃan] (fonema bakar bat)

Eta bestetik, →adiera aldatzen denean, berriz, bi fonema ditugula:

eusk. [eʃkeʃ] ≠ [eskeʃ]

«esker» ≠ «ezker»

→Aurkakotasunean agertzen diren bi fonema horietan beraz, (/ʃ/ eta /s/ gure adibidean), →ezaugarri batzu berberak dira; baina beste batzu ez. Gure etsenplu honetan, esate baterako, «→igurzkari» ezaugarria edo «→gor» delakoa, biek dituzte; eta ez dira, beraz, aurkakotasun-sortzaile. Artikulagunea, berriz, bai: →apikaria / →mingaikaria.

Trukaketaren bitartez lortzen ditugun ondorioek, hizkuntza batetan balio dute; baina beste batzutan ez. Zenbait hizkuntzatan /f/ eta /R/ bi fonema desberdin dira; baina euskaraz ez dira.

Trukaketa →morfosintaxiaren mailan erabiltzen da gaur (→Chomsky-ren eskolan bereziki). *Gizon hau/gizona* bikoteak, kasu batez, *hau* eta *-a* →sintaxi-→kategoria berean sartzera bultzatzen gaitu.

Turing

turing / turing / turing

«Turing-en makina» deitu ohi dena, ez da, izan, matematikazko ideia baten irudia baizik.

Leibriz-ez geroztik, eta algebraren bitartez, kopuruak erabili beharrean →letrak ere erabil daitezke.

Baina edozein algoritmoz baliatzeko gauza izango litzatekeen *automatari*, Turing-en makina deritzo.

Gramatika →sortzaileak ematen dituen →berridazketa-→erregelak, honetara, eragiketa automatikoak dira.

Txandaketa

Sin.: ALTERNANTZIA

Erregulariki elkarrekin truke egiten duten →fonemen korrespondentzian datza txandaketa, forma-sail desberdinetan barrena:

— *bokalikoa* izan daiteke: Alem. *Bux*, *Büxen*; fr. *peuvent*, *pouvons*.

— edo *kontsonantikoa*: Fr.: *vif - vive*.

Gerta daiteke, era berean, →*prosodi*
→*ezaugarrien* arteko txandaketa. Adibi-
dez:

— *kantitatezkoa, txekieraz.*

— *azentuzkoa, errusieraz.*

— *tonuzkoa, mixtekoz.*

Garde-ren ustez, *fonemen* arteko *mugak* eta →*morfemen* arteko mugak batera gertatzen ez diren hizkuntzetan, gertatu ohi dira eskuarki alternantziok. Hau da, *morfemek* ez dituzte beti →*ezaugarri* →*bereizle* berberak agertzen.

Amerikatar Morfofonemikak, *morfema* berberaren →*alomorfoen* arteko txandaketak ditu aztergai.

Ezagunak dira, bestalde, indoeuropar hizkuntzetan gertatzen diren txandaketak.

Ik. INFLEXIOA; SANDHIA

J. R. Zubiaur

Itz.: Txillardegia

Txertakuntza

incrustación / enchâssement / embedding
Kontzeptu hau gramatika bihurtzailean erabiltzen da gehienik; eta elementu bat *tar-tean* sartzeko eragiketa adierazten du. →*Erlatiboa*, esate baterako, txertakuntza bidez sartzen da perpaus nagusiaren barruan:

gizona azkarra da

gizona etorri da

Eta, hortaz:

etorri den gizona azkarra da.

Txipigarria

diminutivo / diminutif / diminutive

Sin.: DIMINUTIBOA

Txikitat hartzen den eta gehienetan →*konnotazio* →*hipokoristikoz* hornitua dagoen objektu bat aipatzen duen →*izenari diminutiboa* deritza. Laburduraz lor daiteke (*Peñan*, *Fernandoren ordez*), →*horzkari*en palatalizazioaz (*Maddalen*, *ttipi*, *txakur*, *Mañu*), →*atzizki* diminutiboak erantsiz (*umetxo*, *andereño*, *urrunsko*).

Txistuzkoa

sibilante / sifflante / sibilant

→*Kontsonante* →*igurzkari*en azpitalde bat dira *txistuzkoak*, →*albeolare* edo →*horzkari* eta →*apikari* edo mingainurreko bezala gauzatua. Akustikoki, kontsonante barreiatu, →*zorrotz*, →*etengabe*, karrankariak dira txistuzkoak.

Txistuzkoak, txitxekariak bezala, mihia kanale-forman jarritz gauzatzen dira, honela espirantizazioa bortitzagotuz eta airea zurrunbiloka jaurtikiz. *Txistuzkoa* terminoa, ordea, txitxekariaren eta beste igurzkari guztiena baino frekuentzi erregistro garaiagoak (8.000-9.000 bat hertziotakoak) sortzen duen entzute-inpresioari dagokio.

→*Fonema* arruntak dira txistuzkoak munduko hizkuntzetan. Zenbait hizkuntzak ez du fonema txistuzko bat besterik: [s] gorra, alegia, →*textuinguru* batzutan [z] →*ozen* bezala gauzatua. Euskaraz, bi igurzkari txistuzko bereizten dira, biak gorrak direlarik eskuarki: *zen* hitzaren [s] txistuzkoa, mingainkari-albeolarea da, eta *sen* hitzaren [ś], apikari-horzkaria.

Txutxumutxua

cuchicheo / chuchotement / whisper

Txutxumutxuzko ahotsa, →*ahots-kordek* arnasketa normalari dagokion lekugunearan (ahots-kordak berezirik eta glotia irekita) eta fonazioari dagokionaren (ahots-kordak elkar ukitzen dutela eta glotia itxirik) tar-teko lekugunea hartzen dutenean, direlako ahots-korden dardarak sortzen duen laringeko burrunbada da. *Txutxumutxuzko* ahotsa sortzeko, ahots-kordak hein batetan baturik daude, baina aritenoideoen artean dagoen glotiaren zatia irekia dago airea igarotzen utziz. →*Soinu-iturburua*, orduan, *aire-zurrust* antzeko isurtze-hotsez egina dago, zeinak gloti gainetiko barrunbe guztiak zeharkatzen bait ditu eta →*mezu fonikoaren* →*euskarri-zeregina* egiten bait du. *Txutxumutxuzko* ahotsak artikulazioaren irudi osoa ematen du funtsean eta normalean →*adierazpen fonetiko*a entzuteko eta harmoniaren aldetik aztertzeko aukera ematen du. Hala ere, intentsitatea motelagoa da hemen, eta irispidea murriztuagoa, ahots normalaren kasuan baino.